

PRENTSA OHARRA

Amurriok Aiarako Kuadrillarekin partekatzen du bere Errolda Sozialaren eredia, urtebetez lan teknikoa egin ondoren

- Udalak beste udalerrri batzuen esku jartzen du funtsezko tresna bat bizitegi-bazterketa egoeran dauden pertsonen oinarrizko eskubideak bermatzeko

Amurrio, 2026ko apirilaren 21a. Amurrioko Udalak Errolda Soziala arautzeko proposamena aurkeztu die Aiarako Kuadrillako gainerako udalei, inguruko beste udalerrri batzuetan ezartzea errazteko. Eredu hori Gizarte Zerbitzuen Sailak garatu du azken urtean, udal-errodaren arloarekin koordinatuta, bizitegi-bazterketari lotutako kalteberatasun bereziko egoerei erantzuteko.

Errolda Soziala salbuespenezko baliabidea da, eta helbiderik ez duten pertsonak udalerrian erroldatzeko aukera ematen du, betiere Gizarte Zerbitzuek artatzen badituzte eta baldintza batzuk betetzen badituzte. Tresna hori funtsezkoa da oinarrizko eskubideak bermatzeko, hala nola osasuna, hezkuntza edo gizarte-prestazioak, batez ere etxegabeen kasuan edo segurtasunik gabeko etxebizitzan kasuan.

Proposamenak aplikatzeko irizpide argiak ezartzen ditu, eta sartzeko baldintzak nahiz tipifikatutako egoerak (bizitegi-bazterketa larria edo arriskuan dauden adingabeak egotea) definitzen ditu, baita administrazio-prozedura eta beharrezko jarraipen teknikoa ere. Erroldatzea udal helbide batean egiten da, Gizarte Zerbitzuei lotuta, eta egoitza-egoera normalizatzerako bideratutako esku-hartze plan pertsonalizatu bati lotuta dago.

Txerra Molinuevo Amurrioko alkateak ekimen honen garrantzia azpimarratu du: "*Errolda ez da izapide administratibo bat soilik, oinarrizko eskubideak eskuratzeko atea da. Amurriotik eredu hori partekatu nahi dugu, gure eskualdeko bizilagunak sistematik kanpo gera ez daitezen helbiderik ez izateagatik*".

Bestalde, Gizarte Ekintzako zinegotzi Laura Fernandezek egindako lan teknikoa nabarmendu du: "*Urtebete daramagu Gizarte Zerbitzuetatik proposamen hau lantzen, tresna erabilgarria, bermatzailea eta araudiarekin bat datorrena eraikiz. Inklusio-prozesuak laguntzeko pentsatutako baliabidea da, ez etengabeko irtenbide gisa, baizik eta normalizaziorako urrats gisa*".

Ekimen horren bidez, Amurrioko Udalak gizarte-kohesioarekin eta eskubideen bermearekin duen konpromisoa indartzen du, eta, aldi berean, Aiarako Kuadrillako udalerrien arteko lankidetzaren sustatzen du, errealitate partekatuei erantzun komunak emateko.

Informazio gehiago / Más información:

Garazi Pedreira: 662 219 057
prentsa@amurrio.org